

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

**Euskal Sektore Publikoaren Partaidetza-
ehunekoa Kapital Sozialaren % 50etik
gorakoa duten Sozietateen
Legezkoitasunaren Fiskalizazioa, 2000-
2006ko aldian eratu zirenen**

**Fiscalización de legalidad de las Sociedades
con Porcentaje de Participación del Sector
Público Vasco Superior al 50% de su Capital
Social, creadas en el periodo 2000-2006**

2006





AURKIBIDEA/ÍNDICE

I.	SARRERA.....	7
II.	SOZietATEEK LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA	9
II.1	ONDASUN ETA ZERBITZUEN EROSKETA, ONDARE ERAGIKETAK ETA LANGILEEN KONTRATAZIOA, 2006-KO EKITALDIA	9
II.1.1	ONDASUN ETA ZERBITZUEN EROSKETA ETA ONDARE ERAGIKETAK.....	9
II.1.2	LANGILEEN KONTRATAZIOA.....	9
III.	BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	12
III.1	OROKORRA	12
III.2	ONDASUN ETA ZERBITZUEN EROSKETARAKO PROZEDURA	12
III.3	ESKAINTZEN BALORAKETA	12
III.4	LANGILEEN HAUTAKETA.....	13
IV.	AZTERTUTAKO SOZietATEEN URTEKO KONTUAK 2006-KO ABENDUAREN 31-N.....	14
IV.1	EGOERAREN BALANTZEA.....	14
IV.2	GALDU-IRABAZIEN KONTUA.....	15
V.	ADMINISTRATIO PUBLIKOEK SOZietATE HAUEK SORTZEKO IZAN DITUZTEN ARRAZoiAK ETA JARRAITUTAKO PROZEDURAK.....	16
V.1	EUSKAL ADMINISTRATIO PUBLIKOEK MERKATARITZAKO SOZietATEAK SORTZEA, HORIEN KAPITAL SOZIALEAN GUTXIENGO PARTAIDETZA BITARTEZ	16
V.2	ARRAZoiAK ETA PROZEDURAK.....	16
V.2.1	LEGERIA EZARGARRIA	16
V.2.2	IRIZPEN OROKORRAK	17
V.2.3	BESTELAKO ALDERDiAK	19
V.2.3.1	BiOGARBiKER, S.A.....	19
V.2.3.2	BiOSASiETA, S.A.....	20
V.2.3.3	KULTURA GARAiKIDEAREN NAZioARTEKO ZENTROA, S.A.	20
V.2.3.4	IZENPE, S.A.	21
V.2.3.5	JAiZKiBiA, S.A.	21
V.2.3.6	GARAiA BERRiKUNTZA GUNEA, KOOPERATiBA-SOZietATEA	21
V.2.3.7	SESTAO BERRi 2010, S.A.	22
V.2.3.8	BiLBOKO AiREPORTUA SUSTATZEKO SOZietATEA, SA	22
V.2.3.9	URDiLiZKO iNDUSTRIALDEA, S.A.	23
V.2.3.10	ViTORiA iNTEGRATED AiR SERVICES, S.A.....	23



ALEGAZIOAK	25
BOTO PARTIKULARRA	45
I. INTRODUCCIÓN	49
II. OPINIÓN SOBRE CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD POR LAS SOCIEDADES	51
II.1 ADQUISICIÓN DE BIENES Y SERVICIOS, OPERACIONES PATRIMONIALES Y CONTRATACIÓN DE PERSONAL, EJERCICIO 2006.....	51
II.1.1 ADQUISICIÓN DE BIENES Y SERVICIOS Y OPERACIONES PATRIMONIALES ..	51
II.1.2 CONTRATACIÓN DE PERSONAL	52
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....	54
III.1 GENERAL.....	54
III.2 PROCEDIMIENTO DE COMPRAS DE BIENES Y SERVICIOS	54
III.3 VALORACIÓN DE OFERTAS	54
III.4 SELECCIÓN DE PERSONAL.....	55
IV. CUENTAS ANUALES DE LAS SOCIEDADES ANALIZADAS AL 31 DE DICIEMBRE DE 2006	56
IV.1 BALANCE DE SITUACIÓN	56
IV.2 CUENTA DE PÉRDIDAS Y GANANCIAS	57
V. ANÁLISIS SOBRE LA MOTIVACIÓN Y PROCEDIMIENTO SEGUIDOS POR LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS EN LA CREACIÓN DE ESTAS SOCIEDADES	58
V.1 CREACIÓN POR LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS VASCAS DE SOCIEDADES MERCANTILES MEDIANTE PARTICIPACIONES MINORITARIAS EN SU CAPITAL SOCIAL.....	58



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2	MOTIVACIÓN Y PROCEDIMIENTOS	58
V.2.1	LEGISLACIÓN APLICABLE.....	58
V.2.2	CONSIDERACIONES GENERALES.....	58
V.2.3	OTROS ASPECTOS.....	59
V.2.3.1	BIOGARBIKER, S.A.....	62
V.2.3.2	BIOSASIETA, S.A.....	62
V.2.3.3	CENTRO INTERNACIONAL DE CULTURA CONTEMPORÁNEA, S.A.....	63
V.2.3.4	IZENPE, S.A.	63
V.2.3.5	JAIZKIBIA, S.A.	63
V.2.3.6	POLO DE INNOVACIÓN GARAIA, SOCIEDAD COOPERATIVA.....	64
V.2.3.7	SESTAO BERRI 2010, S.A.	64
V.2.3.8	SOCIEDAD PROMOCIÓN AEROPUERTO DE BILBAO, S.A.	65
V.2.3.9	URDULIZKO INDUSTRIALDEA, S.A.	65
V.2.3.10	VITORIA INTEGRATED AIR SERVICES, S.A.....	66
ANEXOS	67
A.1	CONTRATOS ANALIZADOS	67
A.2	PLANTILLA DE LAS SOCIEDADES ANALIZADAS.....	68
A.3	EXPEDIENTES DE CONSTITUCIÓN DE SOCIEDADES.....	68
ALEGACIONES	71
VOTO PARTICULAR	91

Vitoria-Gasteiz, 2010eko martxoaren 4a
Vitoria-Gasteiz, a 4 de marzo de 2010

I. SARRERA

Epaitegi honetako 2009rako urteko lan programak, Eusko Legebiltzarraren Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeak hala eskatuta, euskal sektore publikoaren partaidetza-ehunekoa kapital sozialaren % 50etik gorakoa duten sozietateen fiskalizazioa besarkatzen du, 2000 eta 2006 bitarteko aldian eratu zirenean.

Ondasun erosketa eta zerbitzuei, langileen kontratazioari eta ondare eragiketei ezargarria zaien legezko tasuna 2006ko ekitaldian zehar bete den aztertu dugu. Berebat, fiskalizazio-gai izan diren sozietateak sortuz jarduera ekonomikoen aribidean ekimen publikoen komenigarritasun eta egokitasuna egiaztatzen duten espedienteak aztertu ditugu eta honenbestez, horiek sortzea justifikatzen duen arrazoia.

Sozietateak zehazteko eta euskal sektore publikoaren partaidetza, zuzen nahiz zeharka, 2000-2006 aldian zehar sortutako sozietateen kapital sozialaren % 50etik gorakoa dela zehazteko, informazio eskea luzatu diogu Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrari, Foru Aldundiei eta Lurralde Historikoetako hiru hiriburuetako udalei.

HKEEK berariaz fiskalizatu zuen Bilbao Exhibition Centre, S.A. ren bere jarduera 2005eko urtera arte. Arrazoi horregatik utzi dugu 2001ean sortutako sozietate hori txosten honezaz kanpo. Halaber, Berroeta Aldamar, S.L. Sozietatea ere, 2005ean sortutakoa, txostenaz kanpo utzi da, izan ere, horren jarduera Epaitegi honen aparteko fiskalizazio-gai baita.

Hona hemen 2000-2006 aldian sortutako sozietateak eta 2006ko abenduaren 31n euskal administrazio publikoaren partaidetza, eskuratutako informazioaren arabera:

SOZIETATEA	% partaidetza								
	EAE	BFA	GFA	AFA	Bilboko Udala	Donos. Udala	Gasteizko Udala	Bestel. udalak	Euskal partaid. publikoa guzt.
Badia Berri, S.A.	-	-	-	-	-	42,86	-	57,14	100
Biogarbiker, S.A.	50(*)	50(*)	-	-	-	-	-	-	100
Biosasieta, S.A.	50(*)	-	-	-	-	-	-	50	100
Burtzeña Enpresa Parkea, S.A.	49(*)	41(*)	-	-	-	-	-	10	100
Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zen., SA ...	33,33	-	33,33	-	-	33,34	-	-	100
Izenpe, S.A.	50(*)	25,10(*)	16,60(*)	8,30(*)	-	-	-	-	100
Jaizkibia, S.A.	25	-	25	-	-	-	-	25	75
Ortular, S.A.	-	50(*)	-	-	-	-	-	50	100
Garaia Berrikuntza Poloa, Koop.S.	27,64(*)	-	28,17(*)	-	-	-	-	6,09	61,90
Sestao Bai, S.A.	-	50(*)	-	-	-	-	-	50	100
Sestao Berri 2010, S.A.	50	-	-	-	-	-	-	50	100
Bilboko Aireportua Sustatzeko Soz., SA.....	25	20	-	-	-	-	-	25	70
Urdulizko Industrialdea, S.A.	50(*)	50(*)	-	-	-	-	-	-	100
Vitoria Integrated Air Services, S.A.	37,60(*)	29,30(*)	18,60(*)	8,50(*)	-	-	-	-	94

(*) Zeharkako partaidetza zuzenbide pribatuko sozietate edo ente publiko bitartez

Lanaren emaitzak lau ataletan aurkeztu ditugu:

- Sozietateek legea betetzeari buruzko iritzia (ikus II. atala)
- Barne kontrolerako sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak (ikus III. atala).
- Aztertutako sozietateen urteko kontuak 2006ko abenduaren 31n (ikus IV. atala).
- Administrazio publikoek sozietate hauek sortzeko izan dituzten arrazoien eta jarraitutako prozeduren azterketa (ikus V. atala).

II. SOZIETATEEK LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

II.1 ONDASUN ETA ZERBITZUEN EROSKETA, ONDARE ERAGIKETAK ETA LANGILEEN KONTRATAZIOA, 2006-KO EKITALDIA

Honako lege eta zuzentarau hauek bete izana egiaztatu dugu: Administrazio Publikoetako kontratuen Legearen Testu Bateratua onesten duen 2/2000 Legegintzako Errege Dekretua; 2004/18/EE eta 2004/17/EE zuzentarauak, biak ere Europako Legebiltzarrekoak eta Kontseilukoak eta 2004ko martxoaren 31koak, obra, hornidura eta zerbitzuetako kontratu publikoen esleipen prozedurak koordinatzeari buruzkoa, eta ura, garraioen energia eta posta zerbitzuen alorretan kontratuen esleipen prozedurak koordinatzeari buruzkoa. Berebat, langileen kontratazioari eta 2006ko ekitaldiaren ondare eragiketei ezargarria zaien legezketasuna bete izana aztertu dugu.

Ondotik zehaztuko ditugun sozietateek ez dute fiskalizazio gai izan den aldian ondasun eta zerbitzu erosketen eta/edo langileriaren kontratazio adierazgarririk gauzatu:

SOZIETATEA	EZ DUTE KONTRATATU	
	ONDASUN ETA ZERB.	LANGILERIA
Badia Berri, S.A.	X	
Biogarbiker, S.A.	X	X
Biosasieta, S.A.		X
Burtzeña Enpresa Parkea, S.A.		X
Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa, SA.	X	
Jaizkibia, S.A.	X	X
Ortular, S.A.	X	X
Garaia Berrikuntza Poloa, Koop.S.	X	X
Sestao Bai, S.A.	X	X
Bilboko Aireportua Sustatzeko Sozietatea, SA	X	X
Urdulizko Industrialdea, S.A.	X	

Fiskalizatutako aldian zehar ondare eragiketak egin dituen sozietate bakarra Urdulizko Industrialdea, SA izan da.

Eragiketa adierazgarriak egin dituzten sozietateetan azaleratu diren akatsak, honako hauek izan dira:

II.1.1 ONDASUN ETA ZERBITZUEN EROSKETA ETA ONDARE ERAGIKETAK

- Biosasieta, S.A.k 48 mila euroko espediente bat publizitaterik bideratu gabe esleitu du.
- Burtzeña Enpresa Parkea, S.A.k 33 mila euroko espediente bat publizitaterik bideratu gabe esleitu du. Honez gain, esleipenaren objektibotasuna bermatuko duten ebaluazio irizpiderik ez dago.

- Izenpe, S.A.k 385 mila euroko sei espediente publiziterik bideratu gabe esleitu ditu. Hiru espedientetan, berriz, 271 mila eurokoetan, ez dago esleipenaren objektibotasuna bermatuko duen ebaluazio irizpiderik.
- Sestao Berri 2010, S.A.k 403 mila euroko hiru espediente publizitate eta lehia irizpideak bete gabe esleitu ditu. Gainera, espediente horietako bat, BEZ kenduta 230 mila euro egin dituen, ez da DOUEn argitara eman. Bestalde, 83 mila euroko espediente batean zehaztugabe dago kontratuaren xedea.
- Urdulizko Industrialdea, S.A.k sozietate pribatu bati 8,15 milioi euroko zenbatekoarekin zuzenean saldu dizkio higiezinak, publizitate eta lehia printzipioak gorde gabe.
Kopuru hori 15 urtetan ordainduko da eta honek berekin inplizituki 1,63 milioi euroko interesa dakar. Ibilgetu horien tasazio balioa 8,04 milioi eurokoa da. Bestalde, ez dago helburuak bete izana (jarduerari eustea) eta interes publikoaren defentsa bermatuko duen elementurik.
- Vitoria Integrated Air Services, S.A.k 209 mila euroko espediente bat publizitate eta lehia irizpideak bete gabe esleitu du. Honez gain, esleipenaren objektibotasuna bermatuko duten ebaluazio irizpiderik ez dago.

Epaitegi honen iritzira, Biosasieta, SA, Burtzeña Empresa Parkea, S.A., Izenpe, S.A. eta Sestao Berri 2010, S.A. sozietateek ez dute 2006ko ekitaldian ondasun eta zerbitzu erosketa arautzen duen lege arautegia bete eta Urdulizko Industrialdea, S.A. sozietateak ez du 2006ko ekitaldian ondare eragiketarak arautzen dituen legezko araudia bete. Bestalde, Vitoria Integrates Air Services, S.A. sozietateak aurreko idatzatian zehaztutako ez betetzea alde batera, zuzentasunez bete du 2006ko ekitaldian ondasun eta zerbitzu erosketa arautzen duen lege arautegia.

II.1.2 LANGILEEN KONTRATAZIOA

- Izenpe, SAK hiru langile finko publiziterik gabe eta berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete gabe kontratatu ditu.
- Urdulizko Industrialdea, S.A.k aldibateko langile bat publiziterik gabe eta berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete gabe kontratatu du.
- Vitoria Integrated Air Services, S.A.k aldibateko hiru langile publiziterik gabe eta berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete gabe kontratatu du.
- Sestao Berri 2010, S.A.k kanpoko aholkularitza baten bidez, aldi baterako hiru langile publizitatea eginda kontratatu ditu. Sozietateak aholkularitzak proposatutako izangaien artean hautaketa egiteko izan dituen arrazoien ebidentzia egiaztagarrik ez dago.

Epaitegi honen iritzira, Epaitegi honen iritzira, Izenpe, S.A., Urdulizko Industrialdea, S.A. eta Vitoria Integrated Air Services, S.A. sozietateek ez dute 2006ko ekitaldian

langileen kontratazioa arautzen duen lege arautegia bete. Bestalde, Sestao Berri 2010, SA sozietateak, aurreko idatz-zatian zehaztutako ez betetzea alde batera, zuzentasunez bete du 2006ko ekitaldian langileen kontratazioa arautzen duen lege arautegia.

III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

III.1 OROKORRA

Euskal administrazio publikoen partaidetza gutxiengoa den merkataritza-sozietateen sorrera, nahiz kapital publikoa gehiengoa den, dela lehia askeko erregimenean enpresa-jarduerak egiteko, dela eskumen eta zerbitzu publikoak emateko, ez da, printzipioz, arrisku ekonomiko (kaudimen-gabezia) eta legezko irabaziaren gainean antolatzen, aukera horietako bat bera ere ez baita praktikan gauzatzen. Gehiago da jarduteko askatasunaren administrazioko eskaera bati emandako erantzuna. Izan ere, bistakoa da molde honen bitartez murriztu egiten direla kontrol ohiko, ekonomiko eta aurrekontuzkoak.

Gaur egun, horien gainean ezartzen diren kontrolak zehazteko ezaugarri erabakigarriak erakunde publikoen parte-hartze ehunekoak eta horien bilketa edo dibertsifikazioa dira eta ez zenbatekoa edo jasotako ekarpen eta/edo diru-laguntzen erakunde emailea. Kapital publikoa gehiengoa duten sozietateentzat, dagozkion arauen bitartez, gutxienez sozietate publikoek dituztenen pareko kontrol-bideak ezartzea gomendatzen dugu.

III.2 ONDASUN ETA ZERBITZUEN EROSKETARAKO PROZEDURA

Kapitalaren gehiengoa izaera publikoa duten entitateena den sozietateetan partaidetza duten administrazio publikoen erantzukizuna da partaidetutako sozietateek ezargarria zaien legeria betetzea. Horretarako, sozietate horiek jarraitu beharreko prozedura eta irizpideak jasoko dituen instrukzioa mamitu behar da, publizitate eta lehia printzipioak beteko direla bermatuko duena.

III.3 ESKAINTZEN BALORAKETA

Ondasun eta zerbitzuen kontratazioan, pleguek eskaintzak balio-neurtzeko oinarri izango diren irizpideak finkatu behar lituzkete; baita horien balio-neurketa ere, esleipenean objektibotasuna bermatzeko.

Zenbait sozietatek ez dituzte eskaintzak balio-neurtzeko irizpide objektibo eta neurtuak aurretiazko izaerarekin finkatzen. Beste zenbaitetan, nahiz pleguek esleipenerako abiaburu diren irizpideak finkatzen dituzten, hauek ez daude aurrez balio-neurtuak.

Honekiko hutsak erakusten dituzten sozietateak honako hauek dira:

SOZIETATEA	HUTS MOTA	
	IRIZPIDE SUBJEKTIBOAK BALORATZEN DIRA	NEURTU GABEKO IRIZPIDEAK
Izenpe, S.A.	X	X
Sestao Berri 2010, S.A.	X	
Vitoria Integrated Air Services, S.A.	X	X

III.4 LANGILEEN HAUTAKETA

Izangaien hautaketa egiteko kanpo aholkularietara jotzen denean sozietateek hautaketa egiten duenari eskatu behar diote xehetasunezko txostena egin dezala lanpostua eskatu duten izangai ororen gainean eta sozietate bakoitzari proposatutako izangaiak zehazteko eman diren urratsen gainean.

IV. AZTERTUTAKO SOZIETATEEN URTEKO KONTUAK 2006-KO ABENDUAREN 31-N

IV.1 EGOERAREN BALANTZEA

Mila euro

Egoeraren balantzea	Badia			Kultura G.			
	Berri	Biogarbiker	Biosasieta	Zentroa	Izenpe	Jaizkibia	Ortular
Establezimendu gastuak.....	-	2	-	-	202	46	2
Ibilgetu ezmateriala.....	-	-	-	2	334	-	-
Ibilgetu materiala.....	1	1.527	456	8.301	59	-	-
Ibilgetu finantzarioa.....	-	53	23	2	-	-	-
Zordunak.....	799	44	53	252	2.281	-	1
Izakinak (lursailak/beste).....	1	-	-	-	94	-	-
Finantza inbertsioak.....	-	2	2	1.700	2	-	-
Diruzaintza.....	97	10	133	120	626	3.954	55
Aldizkapenengatiko doiketak.....	-	2	-	9	20	-	-
AKTIBOA	898	1.640	667	10.386	3.618	4.000	58
Berezko Fondoak.....	63	-	614	10.260	1.178	4.000	58
Diru-sarrerak, hainbat ekit. banatz.....	1	35	-	-	-	-	-
Arrisku eta gastuen hornidura.....	-	-	-	-	-	-	-
Hartzekodunak epe luzera.....	-	498	-	-	-	-	-
Hartzekodunak epe laburrera.....	834	352	53	126	2.440	-	-
Aldizkapenengatiko doiketak.....	-	-	-	-	-	-	-
PASIBOA	898	1.640	667	10.386	3.618	4.000	58

Mila euro

Egoeraren Balantzea	Burtzeña	Polo I.	Sestao	Sestao	Billoko airep.	Urdulizko	
	E. Parkea	Garaia	Bai	Berri	sust. soz.	Indust.	VIAS
Establezimendu gastuak.....	1	-	1	2	-	-	14
Ibilgetu ezmateriala.....	-	25	-	3	-	2	2
Ibilgetu materiala.....	15	27.442	-	56	-	85	904
Ibilgetu finantzarioa.....	1	381	-	-	-	7.970	39
Zordunak.....	31	12.872	3	42	43	120	165
Izakinak (lursailak/beste).....	10.580	-	-	-	-	6.748	-
Finantza inbertsioak.....	-	-	-	-	-	18	6
Diruzaintza.....	16	95	44	255	112	7	700
Aldizkapenengatiko doiketak.....	-	-	-	-	-	-	-
AKTIBOA	10.644	40.815	48	358	155	14.950	1.830
Berezko Fondoak.....	5.650	20.523	48	60	51	1.132	1.120
Diru-sarrerak, hainbat ekit. banatz.....	-	864	-	60	-	1.634	-
Arrisku eta gastuen hornidura.....	-	-	-	238	-	-	-
Hartzekodunak epe luzera.....	4.400	330	-	-	-	9.005	-
Hartzekodunak epe laburrera.....	594	19.098	-	-	104	3.179	710
Aldizkapenengatiko doiketak.....	-	-	-	-	-	-	-
PASIBOA	10.644	40.815	48	358	155	14.950	1.830

Jaizkibia, SA sozietatea 2006ko abenduan sortu da eta ez dio jarduerari ekin ekitaldi itxieran.

IV.2 GALDU-IRABAZIEN KONTUA

Mila euro

Emaizten kontua	Badia		Kultura G.				
	Berri	Biogarbiker	Biosasieta	Zentroa	Izenpe	Jaizkibia	Ortuler
Negozio zifratik zenbateko garbia	-	12	242	171	3.105	-	-
Bestelako ustiaketa sarrerak	142	-	-	-	300	-	-
Kapital diru-laguntzak	2	26	1	-	-	-	-
Sarrera finantzarioak	-	2	3	40	13	1	1
Bestelako sarrerak	-	-	9	6	1	-	-
DIRU-SARRERAK	144	40	255	217	3.419	1	1
Langileen gastuak	96	-	-	118	397	-	-
Hornidurak	-	-	-	-	2.215	-	-
Trafiko zuzkidur. aldaketa	-	-	-	-	291	-	-
Beste ekitaldietako galerak	-	-	-	20	2	-	-
Amortizaziorako zuzkidura	2	35	64	121	535	1	-
Ibilgetuaren zuzkid. aldaketa	-	-	-	-	-	-	-
Finantza gastua	-	33	1	-	1	-	-
Bestelako ustiaketa gastuak	46	85	98	958	-	-	4
GASTUAK	144	153	163	1.217	3.441	1	4
EMAITZA	-	(113)	92	(1.000)	(22)	-	(3)

Mila euro

Emaizten kontua	Burtzeña	Polo I.	Sestao	Sestao	Billboko airep.	Urdulizko	
	E. Parkea	Garaia	Bai	Berri	sust. soz.	Indust.	VIAS
Negozio zifratik zenbateko garbia	-	-	-	-	13	8.150	61
Bestelako ustiaketa sarrerak	21	-	-	613	248	-	-
Kapital diru-laguntzak	-	-	-	6	-	-	-
Sarrera finantzarioak	2	92	1	-	-	-	22
Bestelako sarrerak	-	2.697	-	31	-	1.238	-
DIRU-SARRERAK	23	2.789	1	650	261	9.388	83
Langileen gastuak	95	172	-	182	76	92	24
Hornidurak	-	-	-	-	-	11.473	-
Trafiko zuzkidur. aldaketa	-	-	-	-	-	(1.800)	-
Beste ekitaldietako galerak	-	1	-	1	-	-	-
Amortizaziorako zuzkidura	4	46	1	6	-	21	68
Ibilgetuaren zuzkid. aldaketa	-	2.150	-	-	-	-	-
Finantza gastua	140	71	-	-	-	192	3
Bestelako ustiaketa gastuak	196	215	10	431	185	80	425
Ibilgetutik eratorritako galerak	-	321	-	-	-	-	263
GASTUAK	435	2.976	11	620	261	10.058	783
EMAITZA	(412)	(187)	(10)	30	-	(670)	(700)

Jaizkibia, SA sozietatea 2006ko abenduan sortu da eta ez dio jarduerari ekin ekitaldi itxieran.

V. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN SOZIEKATE HAUEK SORTZEKO IZAN DITUZTEN ARRAZOTIAK ETA JARRAITUTAKO PROZEDURAK

V.1 EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN MERKATARITZA SOZIEKATEAK SORTZEA, KAPITAL SOZIALEAN GUTXIENGO PARTAIDETZEN BITARTEZ

Indarrean dagoen legezko esparruari jarraiki (Espainiako Konstituzioa, Autonomia Estatutua eta euskal administrazio publiko ezberdinen ondareari buruzko arautegia) ez dago eragozpenik hainbat administrazio merkatari enpresen sustapena adosteko, haien kapital sozialean % 50etik beherako partaidetzen bitartez; baldin eta horren bidez zerbitzu publiko bat kudeatu edo interesatzen zaien gaitan ekimen publikoa sustatzen badute.

Horrezaz gain, Administrazio bakoitzaren (EAEko toki, foru edo administrazio orokorra) estatutuek xede sozialaren lorpena beste sozietate batzuk sortuz aurreikus badezakete ere, ezinbestekoa da administrazio publiko nagusietako atal eskumenduen baimena jasotzea.

Azkenik, eta laburbilduz esan behar da legez posible baldin bada enpresa helburuetarako enpresa publikoak sortzea, ezinbestekoa izango dela enpresa publikoarekin garatu asmo den enpresa-jarduera sortzeko unean dudarik gabe interes publiko zabala eta preziatua duen jarduera izatea. Gainera, zerbitzu publikoen kudeaketak, kudeaketa pribatuko formuletara joz gero, inola ere ez du saihesten sozietate publikoak administrazio publikoen aribidean buru egiten duten konstituzioaren printzipioetara meneratu behar izatea, besteak beste: arbitrariotasunaren debekua (EEren 9.3 art.); berdintasuna, merezimendua eta gaitasuna (EEren 14 eta 23. art.); objektibotasuna eta legezotasuna (EEren 103 art.); eta baliabide publikoen bidezko erabilera eta gastu publikoaren exekuzioan eraginkortasun eta ekonomia (EEren 31.2 art.).

V.2 ARRAZOTIAK ETA PROZEDURAK

V.2.1 LEGERIA EZARGARRIA

Jarduera ekonomikoan ekimen publikoa gauzatzeko eskumena EAEren administrazioaren, lurralde historikoen eta udal erakundearen antolamendu sarea osatzen duten erakundeetan bistaratzen da.

Euskal sektore publikoa osatzen duten entitateen arautze instituzionala ondoko xedapen hauek finkatzen dute:

EAE:

- Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzazko Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-Ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko legearen testu bategina onesten duena, 2007rako aldatutakoa, Euskadiko Ondareari buruzko azaroaren 17ko 5/2006 Legearen xedatutakoari jarraiki.

Lurralde Historikoak:

- Uztailaren 12ko 6/2005 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakundearen Antolamendu, Gobernu eta Administrazioari buruzkoa, abenduaren 26ko 17/1990 Foru Arauarekin lotuta, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Finantza eta Aurrekontuko Araubideari buruzkoa.

- Urriaren 30eko 15/87 Foru Araua, Araban Jarduera Ekonomiko eta Foru Zerbitzu Publiko Deszentralizatuen kudeaketari buruzkoa.
- 10/97 Foru Araua, urriaren 14koa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Araubide Ekonomikoari buruzkoa.

Guztientzat ere, antolamendu eta ogasuntzako ondorioetarako, sozietate bat publikoa da baldin eta administrazio batek bere kapital sozialean duen partaidetza zuzen nahiz zeharkakoak % 50a gainditzen badu.

Toki Entitateak:

Tokiko esparruan, Euskadiko Udal Legerik ez dagoenez, Toki Araubidearen Oinarri arauak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzazko Errege Dekretua, Toki Araubidearen Gaietan indarreko Xedapenen Testu Bateratua onesten duena.

Honen guztiaren ondorioa da, partaidetza publikoa gehiengoa den sozietateen esparruan, erakundeen izaera anitzak, arazko jatorri ezberdinak eta atxikipen organiko ez homogeen, ezta bateratuak ere, horietan esku hartzeko protokoloetan eskakizun maila ezberdinak izatea eragiten dutela, ondare eta finantza mailako kontrola zailduz batetik eta zailtasun funtzionalak sortuz, bestetik.

V.2.2 IRIZPEN OROKORRAK

II. atalak, sozietateek ondasun eta zerbitzuen erosketa eta langileen kontratazioa arautzen duen legezko arautegia bete duten aztertzen du. Ondotik adierazitako irizpenak sozietateen sortzaile diren administrazio publikoen jokamoldeari buruzkoak dira.

1. Euskal sektore publikoaren partaidetza-ehunekoa kapital sozialaren % 50a baino handiagoa duten 14 sozietateren sorrera aztertu da, erakunde sustatzaileetarik batek ere gehiengo partaidetzarik ez duela.
 - * Badia Berri, S.A., Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa, S.A., Jaizkibia, S.A., Ortulur, S.A., Sestao Bai, S.A. eta Sestao Berri 2010, S.A. sozietateak administrazio publikoen artean lankidetzaz hitzarmenak izenpetu ondoren sortu dira; horietan, hainbat jarduera finantzatzeko beharra zehazten da (kudeatutako diru-laguntza bitartez) eta jarduera horiek osotasunean eta ez bitarteko erakunde modura egiteratuko dituzten sozietateak sortzeko beharra.
 - * Biogarbiker, S.A., Biosasieta, S.A., Burtzeña Enpresa Parkea, S.A., Izenpe, S.A., Urdulizko Industrialdea, S.A., eta Vitoria Integrated Air Services, S.A. sozietateak hitzarmen edo kontratu bidezko inongo baliabide juridikorik gabe sortu dira administrazio publikoen eta Euskadiko lurralde administrazioetako baten partaidetza gehiengoko sozietateen edo sozietate publiko hauetakoren baten artean.
 - * Bilboko Aireportua Sustatzeko Sozietatea, SA lurraldeko administrazio publikoen artean sortu da, aurrez inongo hitzarmenik izenpetu gabe.

2. Gastuaren ikuspegia abiaburu hartuta, ez aztertutako hitzarmenek, ez oroitidazki edo bestelako agiriek, ez dituzte kide sustatzaileek eman beharreko kopuruak zehazteko irizpideak finkatzen, ez eta garatzen duten jarduerarekiko kontu-sail horiek justifikatzeko ere. Horri gaineratzen zaio kasu gehienetan xede sozialak orokorregiak izatea, sozietate bakoitza sortzearekin eskuratu asmo den egiazko zabala balio-neurtu ahal izateko. Kasu askotan, sozietateak ez dira merkataritzako jarduera garatzeko eta irabazia eskuratzeko sortzen, irabazi modura interes orokorra ulerturik (are gehiago, saihestu ere egiten da bere izaera juridiko propioari aurkajarriz). Ildo honi jarraiki, bere oroitidazki deskriptiboetan dagoen justifikazio bakarra da zuzenbide administratiboa saihestu nahi izatea, esparru juridiko horretatik jarduera garatzeak eragiten dituen balizko zailtasunen aurrean.

Bestalde, bidezkoa da erakunde nagusiek baliabideak arrazionalizatzea antzeko helburuak edo berdinak dituzten sozietateak ugalduz.

3. Partaidetza publikoa gehiengoa duten sozietate kopuruak, enpresa ondare honen kudeaketan erregelamendu berariazko eta espezialdua izatea beharrezko egiten du.
4. Partaidetza publikoa gehiengoa duten merkataritzako sozietateen jarduera errentagarritasun, ekonomia eta ekoizpen irizpideetan oinarritu behar da, euren erakunde nagusiek zehaztuko dieten helburuen arabera eta sektore pribatuarekiko ez diskriminazioaren printzipioari meneratuta. Aztertu ditugun sozietateetan ez da arrazoitu eskuratu asmo den kudeaketako eraginkortasun objektibo handiagoa lortzen denik sozietatea sortzearekin, kudeaketako beste molde batzuei aurkajarrita.
5. Erakunde nagusiek baliabideak izan behar dituzte gehiengo partaidetza publikoa duten enpresen funtzionamendua babesteko, jarduteko arau komunak emanaz, kudeaketaren jarraipena eginez eta funtzionamenduaren gardentasuna ziurtatuz, eraginkortasun, errentagarritasun, merkatu eta lehia libreko arauetikiko begiramen eta gizarte erantzukizunari jarraiki.
6. Hirigintzako sozietateen xede sozialek (Ortuler, SA, Burtzeña Enpresa Parkea, SA, Sestao Bai, SA eta Urdulizko Industrialdea, SA) urratu egin dezakete Europako Justizia Auzitegiak merkatua, eskumena, beste operatzaile pribatu batzuen interesa eta kontratu publikoen berezko prestazioa izateari buruz ezarritakoa; izan ere, kontratista izaera hartzen baitute.

Honez gain, lurraren udal ondareari dagokionez, Ortuler, SAren hitzarmenean eta Burtzeña Enpresa Parkea, S.A., Sestao Bai, S.A. eta Urdulizko Industrialdea, S.A.ren oroitidatziatan, ez dira garatu beharreko jarduera jakinak zehazten, ez eta Udalak eta Sozietateak partaidetza, lagapen eta salmenta ondorioetarako lurraren baloraketa, ez gauzatuko den jarduerarekin eskuratu asmo den exekuzio maila ere.

Bestalde, zehaztu gabe geratzen dira Administrazio edo erakunde publiko parte-hartzaileen jarduera aldibereko edo bateratuari buruzko barne harremanak, ez eta, dagozkion eskumen-esparruetara egokitzea ere.

Berebat, partaidetza gutxiengoa den kasuetan ere ez da aurreikusten Tokiko Korporazioak sozietatearen gaineko kontrola egiten duenik. Honi dagokionez, eraketa ekintzan edo estatutuetan ez dira egoera hau aurreikusten duten zuzenbideko arauak aurrez hartu, hala nola, toki erakundearen botoa beharrezkoa izatea zenbait gaietan, edota erakunde kudeatzailearen esku hartzea sozietatean ordezkari baten bitartez, eta baita estatutuek egozten dizkioten egitekoen bidez ere.

7. Administrazio publiko ezberdinek xedatutako lankidetzarako hitzarmen edo baliabideek ez dituzte modu gutxiengoan partaidetzen dituzten merkataritza sozietateen aurrekontu, finantza, kontularitza eta kontrolaren araubidea koordinatzeko baldintzak barne hartzen.

2008ko ekainaren 17an Eusko Legebiltzarraren Mahaiak izapidetzeko onartzea erabaki zuen aurrekontu araubideari buruz indarreko legezko erabakien testu bateratua aldatzeko lege proiektua. 2009ko urtarrilaren 1ean indarrean sartzea aurreikusi zena. Horren izapidea, ordea, bertan behera utzi zen 2008ko uztailaren 15ean Bizkaia eta Arabako foru aldundiek aurkeztutako bi idatziren ondorioz. Proiektu horretan Eusko Legebiltzarrari aitortu beharreko informazioa aurreikusten da, EAEren sektore publikokoak ez izan arren, oso-osorik bertakoak diren erakundeek partaidetuak dauden sozietateen aurrekontu exekuzioari dagokionez, beste administrazio publiko batzuekin batera, EAEren aurrekontu orokorren kontura ekarpenak jasotzen dituztenak.

8. Administrazio ezberdinetan sozietateak sortzeko espedienteak eduki aldetik ez dira homogeenak eta sarritan, sozietate bat sortzeko erabakia hartzeko oinarritzko diren dokumentuak ez dira existitzen. 3. Eranskinean, espedienteen edukian azaleratu diren akatsik adierazgarrienak jaso ditugu.
9. Fiskalizatutako sozietateetan esku hartzen duten toki erakundeek ez dute udalekotze espediente eza justifikatu edo hori izatetik salbuesten duen txostena aurkeztu.

V.2.3 BESTELAKO ALDERDIAK

V.2.3.1 BIOGARBIKER, S.A.

Sozietatea 2003ko urrian sortu zen Jata eta Igorreko hiri hondakinen isurtegietan jasotako biogasaren energia aprobetxatzeko eta baita, hiri hondakinetan jasotako energiaren aprobetxamendurako hirugarrenei aholku emateko ere.

Isurtegiaren aprobetxamendu energetikoaren ustiaketa zuzenean Biogarbiker, S.A.ri emateak, bere xede soziala, hain zuzen ere, ustiaketa hori izanik, publizitate eta lehia printzipioak urratzen ditu. Sozietate honen sorrera soilik justifikatzen da, alde zuzenetik

ekimen pribatuak xede sozial hori egiteko interesik ez duela egiaztatu bada (isurtegiko biogasaren aprobetxamendu energetikoa). Europako Erkidegoko Justizia Auzitegiaren hainbat epaietan adierazitakoari jarraiki, publizitate eta lehia esparruz kanpo soilik gera daitezke Administrazioaren kontrola euren Organoek eurek duten kontrolaren pareko den enpresa haietan eta betiere, jardueraren gehiengoa administrazioetara euretara emana dagoenean.

Eraginkortasun eta eragimenaren hitzetan, ez du inongo justifikaziorik gutxieneko egiturarik gabe merkataritza enpresa bat sortzeak (ez du langilerik) eta ekonomia printzipioz guttiz bestelakoa da enpresa honen kudeaketa oso-osorik beste sozietate publiko batek gauzatzea, lehenengoaren sorrera beharrik gabe gauzatu dela agerian uzten baitu.

V.2.3.2 BIOSASIETA, S.A.

Sozietatea 2000ko martxoan sortu zen zaborretan jasotako energia aprobetxatzeko, bai kanpoko erabileretan, bai barrukoetan, isurtegiko instalakuntzetan bertan ere; baita, hirugarrenei zabor eta hondakinetan jasotako energia aprobetxatzeari buruzko aholku teknikoa emateko ere.

Sozietate honen sorrera soilik justifikatzen da, aldez aurretik ekimen pribatuak xede sozial hori egiteko interesik ez duela egiaztatu bada. Europako Erkidegoko Justizia Auzitegiaren hainbat epaietan adierazitakoari jarraiki, publizitate eta lehia esparruz kanpo soilik gera daitezke Administrazioaren kontrola euren Organoek eurek duten kontrolaren pareko den enpresa haietan eta betiere, jardueraren gehiengoa administrazioetara euretara emana dagoenean.

Eraginkortasun eta eragimenaren hitzetan, ez du inongo justifikaziorik gutxieneko egiturarik gabe merkataritza enpresa bat sortzeak (ez du langilerik) eta ekonomia printzipioz guttiz bestelakoa da enpresa honen kudeaketa oso-osorik beste sozietate publiko batek gauzatzea, lehenengoaren sorrera beharrik gabe gauzatu dela agerian uzten baitu.

V.2.3.3 KULTURA GARAIKIDEAREN NAZIOARTEKO ZENTRUA, SA

Sozietatea 2001eko abenduan sortu zen Donostian kultura garaikideko nazioarteko zentro bat egiteko kultur proiektua eta arkitektura proiektua sortu eta bultzatzeko; baita, horren finantzaketa plana onesteko ere. Behin egitasmoak amaituak direla, Sozietatea abian jarritako eraikin, instalakuntza eta ekipamenduen kudeaketaz, kultur proiektuaren garapenez etorkizunean eta horren kudeaketaz arduratuko da.

2004ko abenduan, 8,5 milioi euroko kapital zabalketa bat egiten da, Sozietatearen hiru akziodunek kopuru berarekin izenpetua. Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bakoitzak 2,8 milioi euroko diru ekarpen bitartez gauzatu dute harpidetza eta Donostiako Udalak lursail baten ekarpen ez diruzkoaren bidez, ekarpenaren ondorioetarako 2,8 milioi euroan baloratua dagoen lursaila. Nolanahi dela ere, lursail honen gaineko adituen tasazioak 25,8 milioi euro egiten ditu.

V.2.3.4 IZENPE, S.A.

Sozietatea 2002ko ekainean sortu zen eta horren xede soziala da euskal sektore publikoa osatzen duten erakundeen esparruan segurtasun zerbitzuak, tekniko eta administratiboak ematea komunikazioetan, teknika eta baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoen bitartez; baita, erabiltzailearen titulu edo egiaztagiriak edota txartel euskarriak jaulki, egin eta hornitzea, pertsona zein erakunde pribatu edo publikoentzat beharrezko; baita agintaritzaren elektronikoaren sustapenarekin lotutako aholkularitza zerbitzuak ere.

Izenpe, SAK egindako azpikontratazio kopuruak adierazten du jarduera ez duela berezko dituen baliabideez baliatuta gauzatzen eta honenbestez, ez du justifikaziorik Sozietate hau sortzeak.

Bestalde, administrazio publikoek enkargu zuzenak egiten dizkiote Sozietate honi, administrazioko kontratazio araudia urratuz. Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia Kontrolerako Bulegoaren txostenak berak zehazten du merkataritzako sozietate honek egin beharreko jarduera lizitazio prozeduren bitartez gauzatu behar dela. Horrez gain, Izenpe SA dirulaguntza publiko bitartez finantzatzen da eta honenbestez, ez du jarduera bereko diren beste erakunde batzuen merkatu-baldintza beretan lehiatzen.

Izenpe SAK bere gain hartu duen proiektuak toki entitateen konfiantza beharra du oinarri eta bere aldeko eskubide eskusiboak sortzea auresuposatzen du.

V.2.3.5 JAIZKIBIA, S.A.

Sozietatea 2006ko abenduan eratu zen Pasaialdea, Jaizkibelgo eta Bidasoa Behereko Korridore Intermodalaren esparru geografikoan hiri-lurren berrikuntza integrala eta ingurumenaren kalitatea eta kalitate sozio-ekonomikoaren hobekuntza xede duten azpiegituraren eta oro har, bestelako zeinahi jardueraren gaineko hirigintzako jardueren plangintza eta exekuzioari dagokionez azterlan, plan eta egitasmoak gauzatzeko.

Eusko Jaurlaritzak 2005eko abenduan 420/2005 Dekretu bidez parte hartzea onartu zuen, EHAAan abenduaren 28an argitara eman zena. Dekretu horretan eta aurreko agirietan sozietatearen helburu bat hitzartzen da, azkenean onartu eta 2006ko abenduan eskrituran jaso zenarekiko -Sozietatea sortu zeneko data- guztiz bestelakoa dena.

V.2.3.6 GARAIA BERRIKUNTZA GUNEA, KOOPERATIBA-SOZINETATEA

Sozietatea 2000ko abenduan sortu zen, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Mondragon Unibertsitatearen arteko lankidetzaren hitzarmena izenpetuta; helburua ekonomia eta enpresa jarduerak garatzea da ikerketarako egokiak diren ekipamenduak hartzeko lur baliagarrien sustapen eta urbanizazioarekin lotutako eremuetan eta erakunde publiko zein pribatuei dagokienez.

Sozietatea sortzeko espedienteetan ez da hori eratzeko inongo arrazoirik adierazten. Justifikazio bakarra Gipuzkoako Aldundiaren Diputatuen Kontseiluaren erabakian ageri da, Sozietatean esku hartzea onesten duena eta bertan jasotzen da "proiektua interesa duten entitate eta erakundearen artean modu arin, koherente eta bateratuan kudeatzeko beharrak

merkataritzako sozietate bat eratzea gomendatzen duela, Eusko Jaurlaritzaren, Arrasateko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren bitarteko erakunde izango dena.

2006an kapital sozialean % 37,57ko partaidetza pribatuak eta jarduera hauek duten babes publikoak beharrezkoa egiten du ekonomia kontrol eta gardentasuna bermatzeko berariazko baliabideak sortzea, lankidetzaren hitzarmenean eta enpresa sortzekoan existitzen ez zirenak.

Sozietatea anonimo modura sortu dena, Sozietate Kooperatibo bihurtu da, aldaketa hori justifikatuko duen bazkide publikoen aldetik inongo akordiorik izan gabe.

V.2.3.7 SESTAO BERRI 2010, S.A.

Sozietatea 2005eko uztailean sortu zen Sestaoko Txabarri-El Sol Barne-Eraldaketarako Plan Bereziaren erabateko garapenerako eta zehazki, desjabetzen onuradun modura jarduteko edota sistema orokor aunitzetarako erosketa edo suntsiketarako egiteko. Berebat, sozietatearen helburua da Txabarri-El Sol Barne-Eraldaketarako Plan Berezia garatzeko hirigintzako planak, proiektuak, atxikitako kudeaketa-programa eta sozioekonomikoak idaztea eta aholkularitza tekniko eta kudeaketazkoa ematea; baita, desjabetutako gunetako etxebizitzetan bizi diren egoiliarren gidatutako eta aholkupeko etxe aldaketa gauzatzea; eta Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarekin lankidetzan aritzea udalerriko arazo ugariak berregokitu eta kokatzeko.

Giza mailako beharrianak udal zerbitzuak bideratu ditu 2006ko urtera arte, jarduera Sozietatera aldatzen dena arte, aldaketa honek aurreko egoerarekiko dakarren hobekuntza eta espezializazioa batere justifikatu gabe eta zerbitzuaren kokapen berri hau baliabidez hornitzea ekonomikoki errentagarri den aztertu gabe.

Sozietatea egiaz gauzatzen ari den eta aurrekontu egin zen baino helburu zabalagoetarako sortu da.

V.2.3.8 BILBOKO AIREPORTUA SUSTATZEKO SOZIETATEA, SA

Sozietatea 2001eko urrian sortu zen eta helburua Bilboko Aireportua sustatzeko, garatzeko eta horri buruz informatzeko zerbitzu guztiak ematea da. Horretarako, bidaiarientzako, merkantziarentzako eta hegazkinentzako zerbitzuak, aireportuko merkatal-zerbitzuak, operadore eta integratzaile logistikoaren zerbitzuak sustatu edo garatzeko edozein jardura burutuko du eta baita Bilboko Aireportuko ingurunearen sutapen eta garapen sozio-ekonomikoa lortzeko jarduerak nahiz aireportuarekiko konektibitatea hobetzekoak, bai sarbideetan bai loturetan, ere.

Ez dira justifikatzen aireportuko kudeatzaileen artean eta operadore logistiko publikoaren arteko harremanak, ez eta sustapen hori gauzatzeko bestelako kudeaketa-bideak ez erabiltzeko arrazoiak, ez diru-laguntza publikoek besteko jardueragatiko diru-sarrera iturria ere.

Ez dago hitzarmen bitartez jasotako araurik, ez agindurik ere, garatu beharreko eskumenak kudeatzeko.

Gauzatutako jarduerak ez du justifikatzen kudeaketan inongo hobekuntzarik ente nagusi propioen baliabideak edo bestelako kudeaketa bideak erabiltzearen aldean. Jarduera nagusiaren garapena akziodunengandik edo beste administrazio publiko batzuetatik funtsak eskuratzeari meneratua dago.

V.2.3.9 URDULIZKO INDUSTRIALDEA, S.A.

Sozietatea 2002ko abenduan sortu zen Urdulizen jarduera ekonomikoetan ekimena eta inbertsioa akuilatu eta sustatzeko, landa- eta hiri-lurretan eragiketa mota oro eginez.

Ez da justifikatzen Sozietate hau bi sozietate publikok sortua izanik, beste berri bat sortzeko beharra, izan ere sozietate nagusiek nortasun juridiko propioa baitute eta jarduera zuzenbide pribatuan garatzeko aukera. Ez dira justifikatzen sozietate berriaren bitartez zeharka gauzatuko diren sozietate nagusien eskumenak. Honezaz gain, ez da justifikatzen sozietate nagusiek sozietate berriari hain xede sozial zabala aitortzeko adinako eskumenak izatea.

Sortze espedienteak ere ez du justifikatzen zein den kudeaketan eskuratu asmo den hobekuntzaren mamia, sozietate nagusien berezko baliabideak edota bestelako kudeaketa bideak erabilia eskuratuko zirenekiko.

V.2.3.10 VITORIA INTEGRATED AIR SERVICES, S.A.

Sozietatea 2001eko maiatzean sortu zen eta xede soziala hirugarrenei eta hirugarrenekin lurrean zamaketa eta asistentziarekin lotutako aireportuko zerbitzu mota guztiak kontratatzea eta zerbitzu ematea da.

Administrazio publikoek sozietate honetan SOCADE, SA Euskadiko Garapen Kapitaleko Sozietatearen bitartez parte hartzen dute, % 100 kapital publikoa dena, eta bertan Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioak eta 3 Lurralde Historikoetakoak parte hartzen dute. Hori dela eta, nahiz Vitoria Integrated Air Services, S.A.n partaidetza publikoak kapital sozialaren % 94 egiten duen, administrazio parte-hartzaileetatik batek ere ez ditu sozietatea sortzearekin eskuratu asmo diren helburuak zehaztu eta ez ditu beharrezko diren azterketa ekonomikoak eta juridikoak mamitu.

ALEGAZIOAK, EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN PARTAIDETZA-EHUNEKOA KAPITAL SOZIALAREN % 50-ETIK GORAKOA DUTEN SOZIETATEEN LEGEZKOTASUNARI BURUZKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI JARRITAKOAK, 2000-2006KO ALDIAN ERATU ZIRENENA.

**** Pertsona fisikoen eta juridikoen izenak eta identifikagarri gerta daitezkeen datuak ezabatu dira.

ALDEZ AURRETIK JAKIN BEHARREKOA

Txostenak aipatzen duen epealdian, indarrean zegoen legezko araubideak berdin eragiten zien ia guztiz publikoak ziren eta esleipen-ahalmena zuten merkataritza-sozietateei zein kontratista aukeratzeko eta kontratazioaren gaineko Europako zuzentarauen eraginpean zeuden kontratuen esleipenerako Administrazio zuzenbidearen erakundeei (HAKLTBren 2.1 artikuluan jasotzen zena, eta guztiz ez bada ere, egungo “erregulazio bateratuari loturiko kontratuekin” bat datorrena). Bestalde, eta gainontzeko kontratueterako, Seigarren Xedapen Gehigarriak horrela zioen: *“sozietateek publizitate eta lehia printzipioetara egokituko dute beren kontratu-jarduera, baldin eta egin beharreko jarduera printzipio horiekiko bateragarria bada.”* Aipatutako printzipioekin bat egite hau, ezin daiteke hartu Administrazio zuzenbidearen erakundeei edo zuzentarauen eraginpeko kontratuak esleitzen dituztenean sozietateei eurei ezartzen zaizkien manu zehatzen aplikazio zuzentzat edo mimetikotzat; baizik eta sozietateak berak egokiago jokatu beharko luke eskatutako printzipioak betearazteko (ikusitako Estatuko Kontratazioaren Aholku Batzordearen 24/1995 txostena), baita horien bateraezintasuna ebazteko dagokion egiketarekin.

Horregatik, txostenak dakartzan gaitzespenak publizitate eta lehia printzipioak ez betetzearren zehaztu behar dira, ezarri zekiokoen araubidea egungoa baino zehaztasun gutxiagokoa baitzen, eta hortaz, ezin da ondorioztatu beste barik, kasu zehatz batzuen publizitate edo lehia eza arau-haustea denik.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Publizitate eta lehia printzipioek ez dute berez Seigarren Xedapen Gehigarriari loturiko kontratuetan ebaluazio-irizpideak sartzeko eskatzen (bai ordea egungo araubideak, askozaz zorrotzagoa gai honetan); izan ere, irizpide horiek eskatzea ulergaitza zen Administrazio zuzenbidearen erakundeek prozedura negoziatuen bitartez esleitutako kontratueterako, HAKLTB-kiko lotuago (Batzordearen 28/1995 txostena, egungo araubidearekin ez litzatekeena berdina izango). Horri horrela, ez luke zentzurik sozietate publikoei eskatzea, lotura gutxiago baitute, eta Zuzentarauetatik kanpoko kontratuak prozedura negoziatuen bitartez, publizitatearekin edo eskaintzen eskaerarekin esleitu bailitzakete (6.XGren printzipioak betez).

Horregatik, irregulartasun honi buruzko aipamenak ezabatzeko eskatzen da.

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAK (EEE) AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

BIOGARBIKER, S.A.

BIOSASIETA, S.A.

SARRERA

Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) partaidetzako sozietateak, HKEEren txostenaren xedea direnak, udalerriekin aurrera daramaten lankidetzaren programaren barruan dauden jardueretako bat da, bertako energia baliabideak ustiatzeko. Zehazki, honako zabortegei hauetan dauden zaborretatik abiatuta:

- Igorre eta Jatako zabortegeietan (Bizkaia), Garbiker A. B. (S. A.) jabea delarik (aurrerantzean, Garbiker), Bizkaiko Foru Aldundiaren sozietate publikoa, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurumen eta Lurralde Ekintza Sailaren menpekoa, hondakinak kudeatzea da haren helburu soziala (Biogarbiker S. A.).
- Sasieta zabortegea (Gipuzkoa), Mancomunidad de Sasieta- Sasieta Mankomunitatea (Biosasieta S. A.) jabea delarik.

Aurreko esperientziak hauexek izan ziren: Bioartigas, S.A., Biosanmarkos, S.A., eta Biogardelegui S. A.

Aipatutako instalazioak Sektore Elektroaren 54/1997 Legearen eta 2818/1998 Errege Dekretuaren barruan daude, energia elektrikoa ekoizteko, energia iturri berriztagarrien bidez hornitzen diren instalazioez dihardutenak. Geroago, 661/2007 Errege Dekretua jarri zen indarrean, erregimen berezian (baterako sorkuntza eta energia berriztagarriak) elektrizitatearen ekoizpenaren jarduna arautzen duena.

Hain zuzen ere, instalazio horiek Eusko Jaurlaritzaren energia politiketako bat garatzen dute, hau da, bertako energia baliabideak ustiatzea energia berriztagarrien alorrean.

Hondakinetan dagoen materia organikoari mikroorganismoek eragiten diote, eta usteldu egiten da. Horren ondorioz, metano eduki handia duen gas bat sortzen da, “zabortegeko gasa” edo biogasa deritzona. Biogas horrek sute eta leherketak eragiteko arrisku du; hori dela eta, kanpora atera behar da erretzeko. Ateratzeko erabiltzen diren putzu eta hodiak zabortegean bertan egoten dira, eta errektuntza egin daiteke energia edo beroa aprobetxatu gabe. Horren alternatiba da, ordea, gas hori energia elektriko bihurtzeko prozesua; hots, biogasean dagoen energia kimikoa energia elektriko bilakatzea. Era horretan sortzen den energia elektriko sare elektrikora konektatuta dagoen hodi baten bidez bideratzen da. Hala, energia elektriko hori Sistema Elektroari saltzen zaio, goraxeago aipatutako lege eta dekretuek xedatzen dituzten baldintza tekniko eta ekonomikoekin bat etorritik. Aurreko guztia kontuan hartuta, plantak kokatuta dauden zabortegeien jabeek aukera dute zabortegeien barruan eratzen diren usain eta gas metaketa (nagusiki metano) arriskutsuak saihesteko. Aldi berean, biogasa errentagarri egiteko pausuak ematen dira; izan ere, atmosferara aireratu ordez, energia elektrikoa ekoizteko erabiltzen da. Hartara, proiektuaren interesa begien bistakoa da.

Azkenik, horrelako proiektuen interesaren beste alderdi bat ere nabarmendu behar da, hau da, energia berriztagarrien ekarpena areagotzen laguntzen dutela EAEko energia-balantzean.

TXOSTENAREN ONDORIOEI EGINDAKO ALEGAZIOAK

II.1.1 ONDASUN ETA ZERBITZU ESKURATZEA ETA ONDAREZKO ERAGIKETAK

2006an, publizitate gabe, Biosasietak 48.000 euroko espediente bat esleitu zuela aipatzen da. A.1 eranskinean azaltzen den bezala, motorraren ekipoaren mantentze integralari dagokio.

Aurreko espedienteak, aldiz, motorren hornitzailearekin sinatutako mantentze-kontratuari egiten dio erreferentzia. Instalazio mota hauetan, mantentzeaz arduratzen dena motorraren hornitzailea izan ohi da, hark baititu aldatzeko piezak eta berak bakarrik eman ditzake. Gainera, espediente hori, neurri handi batean, bost urte lehenago, proiektuaren hasieran, orokorrean negoziatutako hornitze- eta mantentze-kontratuaren berritzea da.

V.2.2 GOGOETA OROKORRAK

1. Biogarbiker, S.A. eta Biosasieta, S.A. eraketari dagokionez, hauxe aipatzen da: hitzarmen edo kontratu juridiko izaera izan litekeen tresnaz lagundu gabe eratu direla, administrazio publikoen eta Euskadin kokatutako administrazioen baten partaidetza nagusia duten sozietate publikoen artean, edo sozietate publiko horietako baten artean.

Beste administrazio batzuekin batera garatzen diren horrelako proiektuetan, ohiko jokabidea da aurretiazko lankidetzaz-hitzarmena sinatzea. Horrek ekartzen du, gehienetan, dagozkion bideragarritasun azterlanak egin ondoren, proiektua behar bezala bideratzeko sozietate bat eratzea.

2. Atal honetan ez dira aipatzen erreferentzia egiten zaien sozietateen izenak, eta horrexegatik, hain zuzen ere, honako alegazio hauek egiten ditugu:

Gastuei dagokienez, bazkide sustatzaileek eman edo jarri behar dituzten zenbatekoak finkatzeko irizpideak ez dakartzatela ez memoriek, ez beste dokumentu batzuek ere aipatzen da. Horrezaz gain, garatu behar den jarduerari lotutako diru sail horien justifikazioa ere ez dakarrela inolako dokumenturik aipatzen da.

EEEren iritziz, hori ez da aplikagarria Biogarbiker, S.A. eta Biosasieta, S.A.ren kasuan; izan ere, eratu baino lehen baimena eskatzeko, Eusko Jaurlaritzari bidaltzen zaizkion memorietan ezartzen dira aipatutako zenbatekoak, egin beharreko inbertsioetatik eratortzen diren finantza premien arabera, eta proiektuaren hasieran, indarrean dagoen EEE-IDAE Hitzarmenaren esparruan lor daitekeen banku-finantzaketa balioetsi ondoren. Goraxeago adierazitako memorietan dokumentazio egokia zegoen, sozietate publikoak eratzeaz diharduen 1992ko maiatzaren 12ko Aginduak eskatzen duena. Hala ere, bertan jasotzen zen bezala, haren izaera ez zen halakoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorra Arautzeko Printzipioen Legeak dioena kontuan hartuta.

Halaber, kasu askotan, sozietateak ez direla eratzten merkataritza-jarduera garatzeko eta irabazia lortzeko, aipatzen da txostenean. Lehen aipatutako memorietan etorkizuneko

aurreikuspen ekonomiko, salmenta, mantentze-kostu eta abarrei buruzko informazioa sartu zuten Biogarbiker, S.A.k zein Biosasieta, S.A.k.

Egia da Energiaren Euskal Erakundeak zenbait sozietate dituela, energia aldetik biogasa ustiatzeko antzeko tresnak edo berdinak dituztenak. Zehazki, 5 dira, lehen adierazi den bezala. Nolanahi ere, gure ustez, horrek ez du esan nahi baliabideak gaizki edo arrazionaltasunik gabe erabiltzen direnik, premia bat baita; izan ere, gasa aprobetxatzen duten zabortegi horien jabeak udal erakunde batzuk dira (udalak edo udalen mankomunitateak), eta horiek guztiak ustiatzeko sozietate bakar bat eratzeak ez luke zentzurik. Horrela balitz, sozietateari egiten dion ekarpenaren arabera izango litzatekeela udal erakunde bakoitzaren partaidetza kontuan hartu behar da, eta hori zehaztea oso zaila da, gas-hondakinen kasuan. Bestetik, ez dirudi oso errealista denik sozietate bat bakarrik eratzeak, elektrizitatea sortzen duten bost planta ustiatzeko, EAEko bost toki ezberdinetan kokatuak, bost udal erakunderen eta EEEren partaidetza izango lukeena, haren abiaraztea mailakatua izanik denboran.

4. Txostenaren zirriborroak dio, besteak beste, partaidetza publikoa nagusi diren merkataritza sozietateak errentagarritasun, ekonomia eta lehiakortasun irizpideetan oinarritu behar direla. Gure aldetik, Biogarbiker, S.A.ren eta Biosasieta, S.A.ren jarduera irizpide horietan oinarritzen direla baieztatu dezakegu, zalantzarik gabe.

5. Era berean, jatorrizko erakundeek edo matrizeek sozietate horien funtzionamenduan laguntzeko bitartekoak eduki edo jarri behar dituztela aipatzen da, jarduteko ildo bateratuak emanaz, kudeaketaren jarraipena eginez eta funtzionamenduaren gardentasuna bermatuz; betiere eraginkortasun eta errentagarritasun irizpideak aintzat hartuz, eta merkatu legeari, lehia askeari eta gizarte erantzukizunari zor zaien errespetua kontuan hartuta.

Horri dagokionez, Biogarbiker, S.A.ren eta Biosasieta, S.A.ren jabetzakoak diren planten kudeaketa tekniko eta ekonomiko EEEk egiten dituela adierazi nahi dugu, biogasaren bidezko elektrizitatea ekoizteko gainerako plantetan egiten duen bezalaxe. Horri esker, eraginkortasunari lotutako irizpide bateratuak ezartzea bermatzen da; izan ere, kasurik gehienetan, sozietateen tamainak ez du justifikatzen langile edo plantilla propioa izatea.

V.2.3.2 BIOGARBIKER, S.A.

Bestetik, “ez dago justifikatuta” esaten denean, eraginkortasun eta efikazia aldetik, merkataritza enpresa bat eratzea inolako egiturarik gabe (“ez du langilerik”), goraxeagoko paragrafoetan adierazi da horrela jokatzeko arrazoia. Hain zuzen ere, gure ustez, kontrakoa erakusten du horrek. Gainera, EEEk sozietatearen kudeaketa integrala egiteak “ez du agerian uzten lehenaren eraketa beharrezkoa ez dela”, udal bazkidearen partaidetza egokia eta beharrezkoa dela kontuan hartuta, zabortegiaren titularra, eta haren ustiapenaren bermatzaile den aldetik, biogasa erauzteko edo ateratzeko putzu eta lineen kudeaketa zuzena egiteko.

V.2.3.3 BIOSASIETA, S.A.

Ikus Biogarbiker, S.A.ri buruz egindako iruzkinak eta emandako arrazoibideak.

ERANSKINEI EGINDAKO ALEGAZIOAK

A.3 SOZIETATEAK ERATZEKO ESPEDIENTEAK

Biosasieta sozietateari dagokionez, txosten juridikoa negatibotzat hartzen da, edo ez dela. EEEren partaidetza sozietate horretan 340/1999 Dekretuaren bidez baimendu zen; beraz, horrek esan nahi du txosten hori positiboa izan behar dela.

KULTURA GARAIKIDEAREN NAZIOARTEKO ZENTROA, SA SOZIETATE PUBLIKOAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Aldez aurrekoa. Behinbehineko txostena lehengo erantzuleei bidaltzeaz.

Kontu Auzitegiaren Funtzionamenduaren 7/1988 Legearen 44.1 artikulua onduzko betebeharrari dagokionez, hau da, lehengo erantzuleei behinbehineko txostena jasotzen denetik bost egun balioduneko epean bidaltzeko beharrari dagokionez, egokitzen jotzen badute, alegazioak aurkez ditzaten, eta orobat Kontu Publikoen Euskal Auzitegiari bidal dezaten pertsonen eta igorketa hori egin den daten zerrenda, Auzitegi horri komunikatu nahi zaio ez dagoela txostenak eragiten dieten eta oraingoaz ez bezalakoak diren lehengo erantzulerik, eta, hortaz, auzi honi dagokionez ez dela inolako jakinarazpenik izan.

Eta hori, orduan eta orain, Herri Administrazio berak direlako (Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Administrazio Nagusia, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Aldundia eta Donostiako Udaletxea), Elkartearen akziodunen multzoa osatzen dutenak, eta bere Administrazio Batzordean beren arduradunak izendatu dituztenak.

Horrez gainera, Kontu Publikoen Euskal Auzitegiaren beraren Idazkaritzak emandako informazioaren arabera, Administrazio horiek guztiek badute delako txosten horren berri, behar den bezala igorri delarik.

Lehenengoa. III.4 epigrafearen alegazioa, “Barnekontroleko sistemei eta kudeaketa-prozedurei buruzko gogoetak”. “Zuzendarien kontratazioa”.

V.2.3.4 NAZIOARTEKO KULTURAZENTRO GARAIKIDEA, S.A.

- “2004ko abenduan, kapitalaren zabalkunde bat egin zen, 8,5 milioi eurokoa, Elkarteko hiru akziodunek parte berdinetan harpidetua. Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, bakoitzak 2,8 milioi euroko ekarpen bana izenpetu zuten, eta Donostiako Udalak dirurik gabeko ekarpen bat izenpetu zuen, finka batena, zeina ekarpenari zegokionez, 2,8 milioi eurotan balioztatu baitzen. Alabaina, finka horren peritazioa 25,8 milioi eurora iristen da”.

Hori delaeta, azpimarratu behar da finka horren ekarpenak, berari lotutako pasibo bat erantsita izateaz gainera, zeina betez gero Elkartearen subrogatzen baitzen, funtsezko zama edo afektazioa zuela, hau da, xede jakin eta aldazkin bati loturik zegoen, eta hura zen, edonola ere, Nazioarteko KulturaZentro Garaikidearen euskarria izatea. Eta afektazio hori, azkenean, ekarpenaren baldintza erabakigarri egiazko eta propio gisa eratzera iristen zen, halako moduz non, edonolako motibo edo gorabeherengatik epe jakin bat igaroko balitz Nazioarteko KulturaZentro Garaikidea eraikitze beharrezko obrak hasi gabe, finka atzera berriz Donostiako Udaletxera itzuliko bailitzateke.

Horrez gainera, aipatu igorpen horretan, Udaletxeak beretzat gordetzen zituen emandako finkek gara zitzakeen hiriaprobetxamendu guztiak, edo haren gainean koka zitezkeenak, dagoen eremuaren ordenamenduaren garapenean. Eta Elkartearen behartua geratzen zen xede horretarako beharrezkoak izan zitezkeen operazio edo izapide guztiak egiaztatzen, Donostiako Udaletxeak beretzat gordetzen zituen hiriaprobetxamendu horiek gauzatu arte.

Bestela ezin izan zitekeenez, eraikinaren balioari buruzko peritaziotxostenetan ez ziren gogoan hartzen zama edo afektazio eta erreserba horiek, besteak beste (inplikaturiko erakundeak publikoak izateaz gainera) haiek kuantifikatzea ezinezkoa zelako, baina, nolana ere, ondasunaren balio baxuagoa suposatzen behar zuten.

Halaxe adierazten du Hilario Otaño Ibarrola jaun aditu independenteak, 2004ko ekainaren 11ko data duen txostenean, zeina honako honetan IV. Eranskin gisa ematen baita, eta kapitalzabalkundearen eskritura publikoari erantsi baitzitzaien. , Bertan adierazten da deskribaturiko finkek eta hari loturiko pasiboak eratutako “batasun ekonomiko” delakoari emandako 2.833.333 euroko balioa, proiektaturiko zabalkundean, eman dakiokeen ekarpen osoaren balio garbia baino baxuagoa dela, eta argitzen da diferentzia horrek “ulertzekoa denez, oso ondo aurki dezake bere oinarria erakundearen gizartexedean bertan (kultura-proiektua), bazkideen nolakotasunean (Herri Administrazioak ordezkartza paritarioan), ekarpenez emandako eraikinaren helburuarekiko loturan (ebazpenklausularekin, kontrako kasuan), eta Donostiako Udaletxearentzat erreserba gisa gordetzean eraikin horren titulartasunaren ondoriozkoak izan daitezkeen hirieskubideak, eraikin nagusian egiten direnak baino handiagoak gertatzen badira”.

Aipatu afektazio horiek berebat dira 2004ko ekainaren 24ko Donostiako Udaletxeko Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako ekarpenakordioaren beraren ondoriozkoak, zeina hemen V. Eranskin gisa ematen baita, eta espresuki honako hauxe adierazten baitu: “Eraikinaren erabateko jabetzaren ekarpena nazioarteko kulturazentro garaikidearen euskarriaren xedearekiko afektazio batekin egingo da, espedientearen ageri den itzulerazko klausula baten bitartez, eta eraikinari dagozkion hiriaprobetxamenduak, finka nagusian egiten direnak ez bezalakoak badira, Udaletxearentzat gordez”.

Baina are gehiago, pentsa bedi ekarpen hori dohainik ere egin izan zitekeela, eta ezingo zitzaien hala ere ekarpenaren legezketasunari inolako alegaziorik egin, ez inolako eragozpenik jarri, are gehiago kontuan hartzen baldin bada Proiektuak hirirako duen interesa, eta delako eraikinaren hartzailea sektore publikoko erakunde bat dela, aipaturiko hiru Administrazioek bakarrik parte hartzen duten elkarte bat.

IZENPE, SA SOZIEATE PUBLIKOAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

TXOSTENAREN ONDORIOEI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

II.1.1 EPIGRAFEA: ONDASUN ETA ZERBITZUEN EROSKETA ETA ONDARE ERAGIKETAK.

- *"Izenpe SA sozietateak sei espediente esleitu ditu, guztira 385 mila euro, publizitaterik egin gabe. 3 espedientetan, guztira 271 mila euro, esleipenaren objektibotasuna bermatzen duen ebaluazio-irizpiderik ez dago."*

ALEGAZIOA

- i. Espedienteen esleipenari eta publizitate-irizpideei dagokienez, Izenperen web-orrian argitaratzen dira, eta jakinarazpenak bidaltzen zaizkie eskaintzak aurkezteko interesa izan dezaketen hornitzaileei. Horrez gain, hiru espedientetan gutxienez hiru enpresari eskatzen zaizkie eskaintzak, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bitartez.
- ii. Ezartzen diren esleipen-irizpideei dagokienez, kontratazio-eskaintza bakoitza lizitatzailerik guztiei homogeneotasunez aplikatuta baloratzera bideratuta daude, betiere eskaintzen izaera konfidentziala kontuan hartuta, eta eskatutako irizpide guztietan puntu gehien lortzen duen eskaintzaren alde egiten da esleipena.
- iii. Herri Administrazioen Kontratuen Legeari buruzko testu bategina (HAKLTB) Izenperi aplikatzea. Herri Administrazioen Kontratuen Legeari buruzko testu bateginak aintzat hartzen zituen aplikazio-maila desberdinak kontuan harturik, legezotasuna bete den aztertzen den unean, Izenperi, 2. artikulua 1. paragrafoan jasota ez dagoen merkataritza-sozietatea den aldetik, seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa izango litzaike aplikatzekoa. Xedapen horrek, hain zuzen ere, kontratu-jardunean publizitate-eta lehia-printzipioak bete behar dituztela ezartzen du, baina ez du zehazten kasu horietan aplikatzeko arauak edo erregelak zein diren. Beraz, HAKLTBn ezarritako kontratuak prestatzeko arauak eta lizitazio-prozedurak ez dira aplikatzekoak izango. Horiek horrela, alderdi honen iritziz fiskalizazioa egiten den datan ez dago HAKLTB aplikatzearen ondorio diren arauen definizio argirik. Publizitatearen eta lehiaren alorreko jardunak definitzeko zehaztasunik ez hori, hain zuzen, Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordearen urriaren 24ko 24/1995 txostenean aipatzen zen. Bertan adierazten zenez:

"...azpimarratu beharra dago publizitatearen eta lehiaren printzipioei lotzeak ez dakarrela, inondik ere, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen arau zehatzei lotzea, zeren legegileak ondorio hori nahi izan balu izendatuki idatziz emango baitzukeen..." "...enpresa bera izango da haiei eraginkortasuna emateko modurik egokiena zein den erabaki beharko duena".

Antzeko irizpideari jarraitu dio gai honetako doktrinak (erf.: Montoya Martín, "Las empresas públicas sometidas a derecho privado" 1996, 496. or. eta hurrengoak / González Cueto y Aparicio Salom, "Comentarios a la ley de contratos de las Administraciones Públicas" 1997, 763. or. eta hurrengoak).

DOKUMENTAZIOA:

- DOC 1 - Eskaintzak eskatu diren espedienteak baloratzeko eta esleitzeko txostena aurkeztu da.
- DOC 2 - Ziurtapen-zerbitzuak lagatzeko kontratua aurkeztu da (PKI lizentziak).
- DOC 3 - Izenperen 2006ko erosketa-prozedura.

II.12 LANGILEAK KONTRATATZEA

- *"Izenpe SA sozietateak 3 langile finko kontratatu ditu, publizitaterik egin gabe eta berdintasun, gaitasun eta meritu printzipioak bete gabe".*

ALEGAZIOA

- I. 2006. urtean egindako kontratazioei dagokienez, langileak hautatzeko web espezializatuak bezalako hedabideetara jo da (infojobs.net) eta lehendik IZENPEEn hautagai izan zirenen eta eskatutako profilarekin bat datozenen curriculum vitae-ak baloratu dira.

DOKUMENTAZIOA:

- Aurkeztutako dokumentazioa: IZENPEren proiektu-arduradunari dagokion profileko langileak hautatzeko txostena.
- *"Epaitegi honen iritziz, Izenpe SA (...) sozietateek ez dute bete langileen kontratazioa arautzen duen araudia 2006ko ekitaldian".*

ALEGAZIOA

- I. Alderdi honen iritziz, lan arloko legeria bete egiten da eta, langileak hautatzeari dagokionez, profilak ezartzeko eta hautagaiak baloratzeko barne-sistemak ezartzen dira, eta aurkeztutako curriculum guztiei uniformetasunez aplikatzen zaizkie. Azkenik, aurkeztutako hautagai guztiei buruzko txostena egiten da, gauzatu diren faseak jasotzen dituen. Amaitzeko, planteatutako kontratazio-proposamena egiten da. Langileak hautatzeko eskatutako egokitasun profesionala aintzat hartzen da beti, eta hautagaiek aurkeztutako gaitasunak eta merezimenduak txosten zehatz batean ebaluatzen dira, berdintasun osoz. Horrez gain, Izenpe Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen aplikazio-esparrutik kanpo dago eta bere kasuan aplikatzekoa den legeria lan-zuzenbidea da. Halaber, lan-kontratuak HAKLTBren aplikazio-esparrutik kanpo daude. Beraz, kasu honetan aplikatzekoak diren arauak definitu gabe daudela esan genezake. Arlo honetan Espainiako Konstituzioaren aginduak (14., 23. eta 103. artikulua) nahitaez betetzekoak dira, baina aplikatzekoak diren arauen zehaztapena printzipio horiek errespetatzen dituzten barne-prozeduretara eratoritzen da.

DOKUMENTAZIOA:

- DOC 4 - Proiektu Arloan langileak hautatzeko txostena (bi lanpostu 2006an).

III.2 EPIGRAFEA: ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK EROSTEKO PROZEDURA

- "...Hala bada, *publizitate eta lehia printzipioak bermatzearen Administrazioek prozedurak eta irizpideak ezartzen dituzten jarraibideak eman beharko dituzte, sozietate horiek bete ditzaten*".

ALEGAZIOA

- Gaur egun IZENPEk landuak ditu Kontratatorako Barne Jarraibideak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean (30/2007 Legea, urriaren 30ekoa) araututako printzipioak beteko direla bermatzen dutenak.

DOKUMENTAZIOA:

- DOC 5 - "IZENPEren Kontratatorako Barne Jarraibideak" dokumentua aurkeztu da, IZENPEren kontratatzaile profilean argitaratua (www.izenpe.com).

V.1 EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN MERKATARITZA SOZIALATEAK SORTZEA HAIEN KAPITAL SOZIALEAN PARTAIDETZA GUTXIENGODUNAK IZANDA.

- "...*eta garatu beharreko jardueraren gomendiorik edo zehaztapen espezifikorik ez izatea gisa horretako sozietateetan interes gutxiengodunak kontrolatzeko arazoak planteatzen dituzte*".

ALEGAZIOA

- Epigrafe honetan garatu beharreko jardueraren gomendiorik edo zehaztapen espezifikorik ez izatea aipatzen da. Puntu honetan adierazi beharra dago IZENPEren estatutuek gaur egun sozietatearen bitarteko propioaren izaera islatzen dutela eta bere xede sozialean mugatzen dutela sozietatearen sorreraren azpian dagoen interes publikoa eta egin daitezkeen gomendioen erregimena, hala nola telekomunikazio-sareen bidezko gobernu elektronikoaren erabilera sustatzea eta gobernu elektronikoaren garapena indartzea, betiere transakzioen segurtasun, konfidentzialtasun, benetakotasun eta atzeraezintasuneko bermekin. Eskatzen zaizkion gomendioak nahitaez betetzekoak dira Izenperentzat.

DOKUMENTAZIOA:

- DOC 6 - IZENPEren estatutuak aurkeztu dira, azken aldaketak eta sektore publikoko kontratuei buruzko legeriarekiko egokitzapenak jasotzen dituztenak.

